



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 10a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- 10-22/PRO-00020. Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or.).
- 10-23/PRO-00001. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko lege-proposamena. Navarra Suma, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/POR-00387. Galdera, Altsasuko osasun barrutia eta bertako osasun etxeak behar diren gutxieneko osasun-baliabideekin –hala langileriakoak nola antolaketakoak– modu iraunkorrean hornitze aldera Osasun Departamentuak garatzea aurreikusita dituen jarduketei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (6. or.).
- 10-23/POR-00001. Galdera, 2023rako hazkunde ekonomikoari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (7. or.).
- 10-23/POR-00002. Galdera, Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzuari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (7. or.).
- 10-23/POR-00003. Galdera, osasun arloko profesionalen lanbide-karrera hobetzeari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (8. or.).
- 10-23/POR-00004. Galdera, COVID-19aren txertaketari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (8. or.).
- 10-23/POR-00005. Galdera, 2022an osasun-garraiorako enpresa publiko bat sortzeko aurrekontu-konpromisoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).

- 10-23/POR-00006. Galdera, Conocimiento y Desarrollo fundazioaren urteko txostenari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (10. or.).
- 10-23/POR-00007. Galdera, Gobernuak toki-entitateekin lankidetzan aritzeari buruzkoa, etxebizitzaren parke publikoa handitze aldera. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (10. or.).
- 10-23/POR-00008. Galdera, ekitaldi instituzionalak mezu alderdikoiak zabaltzeko baliatzeari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00009. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntza hobetzeko Osasun Departamentuaren negoziatzaiei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00010. Galdera, Foruzaingoaren Laguntza Brigadak artatzen dituen indarkeria matxistako salaketen ehunekoaren jaitsierari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (12. or.).
- 10-23/POR-00011. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen artean NBEak erosteko hitzarmenaren arriskuak jakinarazteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- 10-23/POR-00012. Galdera, PSOE eta ERC alderdiek adostu duten eta bidegabeko erabileraren delituagatik zigorrak murriztea dakarren lege-proposamena onesteko arrazoiei eta horren ondorioei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (13. or.).
- 10-23/POR-00013. Galdera, Foruzaingoaren ordezkari sindikalei aurkeztutako jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamenduaren zirraborroak dakarren langile-gastuen igoera finantzatzeari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (14. or.).
- 10-23/POR-00014. Galdera, jakiteko zergatik ez zitzaion Fiskaltzari jakinarazi delitu-zantzuak zeudela Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenari zegokionez. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (14. or.).
- 10-23/POR-00015. Galdera, enpresen gainkostu energetikorako laguntzen eraginkortasunari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (15. or.).
- 10-23/POR-00016. Galdera, osasun-garraio premiazkoa eta programatua kudeaketa publikora itzultzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (15. or.).
- 10-23/POR-00017. Galdera, etorkizunean tenperaturak igoko direneko aurreikuspenaren aurrean hartuko diren proposamen eta neurriei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (16. or.).
- 10-23/POR-00018. Galdera, jakiteko zer neurri hartuko diren Nafarroan iragarri den berehalako medikuen greba dela-eta. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (17. or.).
- 10-23/POR-00019. Galdera, lehendakari andreaken proposamenei buruzkoa, Foru Komunitateak 2020/2024 bosturtekoan egin beharreko ekarpena eguneratzeko akordioari dagokionez. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (17. or.).
- 10-23/POR-00020. Galdera, Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik eratorritako funts ekonomikoekin Ituneko ekarpen berriari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (18. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-22/PRO-00020. Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 152, 153. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzeko Foru Lege proposamenaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea, Erregelamenduko 152. eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunekin.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proposamena,
Euskarari buruzko abenduaren
15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b)
artikulua aldatzekoa**

ZIOEN AZALPENA

18/1986 Foru Legeak, legegileak garai hartan ezarritako irizpide soziolinguistiko eta politikoekin bat, hizkuntza-eremu desberdinak osatzen zituzten udalerririk zerrendatu zituen. Gure komunitatearen errealitate soziolinguistikoa foru lege horren oinarrietako bat den neurrian, eta errealitate hori zerbait bizia denez, agerikoa da legeak bilakaera horretara egokitzeko gai izan behar duela. Praktikan hala izan da, eta horren erakusgarri da hizkuntza-eremu bakoitzera atxikitako udalerriez bezainbatean egindako aldaketak, Nafarroako Parlamentuak onetsiak 2010ean eta 2017an, ukitutako herrietako udaletako osoko bilkurek hala eskatuta.

Hori bera gertatzen da Mañeruren kasuan; izan ere, pasa den apirilaren 6an, udaleko osoko bilkurak aho batez onetsi zuen euskara udalerriko berezko hizkuntza dela adieraztea eta Nafarroako Parlamentua premiatzea “behar diren legegintzako ekimenak abian jar ditzan, hizkuntza-zonifikazioaren irizpideari eusten zaion bitartean, Mañeruko udalerriri eremu misto deiturikoan sartzeko gaitasuna eman diezaion”.

Mozioan bertan, proposatzaileak argudio historikoak, eskola-matrikulazio datu iraunkorrak eta ikerketa soziolinguistikoak erabiltzen zituen eskaeraren funtsa justifikatzeko, eta defendatzen zuen eremu ez euskaldunean jarraitzea konparaziozko bidegabekeria litzatekeela Mañeruko biztanleentzat, jada eremu mistoan dauden herrietako herritarrekin alderatuta.

Beraz, eta Mañeruko herriak egindako eskaerari erantzunez, testu artikulatu hau aurkezten dugu:

Artikulu bakarra. Euskarari buruzko abendua-ren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5.1. artikuluko b) letra aldatzen da eta testu hau izanen du:

“b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abaigar, Abartzuza, Adios, Agoitz, Allin, Ameskoa-barrena, Antsoain, Antzin, Añorbe, Aranaratxe, Aranguren, Arellano, Artazu, Artzibar, Atarrabia, Barañain, Bargota, Beraskoain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Biurrun-Olkoitz, Burgi, Burlata, Cabredo, Deierri, Deikaztelu, Eguesibar, Eneritz, Erriberri, Erronkari, Espartza Zaraitzu, Etxarri, Etxauri, Eulate, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar Zendea, Galoze, Garde, Gares, Gari-noain, Gesalatz, Goñerri, Gorza, Iruña, Itza Zendea, Itzagaondoa, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Larragoa, Leotz, Lerga, Lezaun, Lizarra, Lizoain-Arriasoiti, Longida, Mañeru, Mendigorria, Metauten, Mirafuentes, Murieta, Nazar, Obanos, Odieta,

Oibar, Olaibar, Ollaran, Oltza Zendea, Orkoiien, Orontze, Orotz Betelu, Oteitza, Otsagabia, Puiu, Sartze, Tafalla, Tebas-Muru Artederreta, Tirapu, Txulapain, Uharte, Untzue, Urraulbeiti, Urrotz-Hiria, Urzainki, Uxue, Uztarroze, Villatuerta, Zabal-tza, Zangoza, Zirauki, Ziritza, Zizur Zendea, Zizur Nagusia eta Zuñiga.

Eremu misto hori automatikoki hedatu ahalko da Noain-Elortzibarko udalerrira, baldin eta toki korporazio horretako osoko bilkurak aurretiaz eta gehiengo osoz hartzen badu horretarako erabakia. Erabaki horrek eragingarritasun osoa izan dezan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da”.

Azken xedapena.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

10-23/PRO-00001. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko lege-proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Navarra Suma, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148., 152., 153. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko Foru

Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Aipatu foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea, Erregelamenduko 152 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunekin.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko lege-proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea aldatu egin behar da, araua egungo errealtatera egokitzeko, gaur egun bi motatako tokiko sozietate publikoak baitaude: batetik, kapital osoa jatorriko toki-entitatearen jabetzakoa dutenak, eta, bestetik, jatorriko toki-entitateak sozietatearen kapitalean parte-hartzearen gehiengoa izanik ere, sektore publikoko beste entitate batzuen jabetzakoa ere badirenak modu minoritarioan, hala nola Nafarroako Gobernuarenak, CEPEN-Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoarenak, beste toki-entitate batzuenak, etab.

Partaidetza sektore publikoko zenbait entitatearen artean banatuta duten sozietate horiek, gaur egun, indarreko legearen idazketari jarraikiz, zeharkako kudeaketako bitartekotzat jotzen dira (192.3 e artikulua), eta gehienez ere 50 urteko

indarraldia izaten ahal duen emakida batekin lotuta daude (194. artikulua). Hain zuzen ere, epe hori betetzeko zorian dago Nafarroako udal-sozietate batzuetan, eta Mercairuña da horietako lehenengoa; horren ondorioz, dagoeneko murriztu egin dira sozietatearen proiektzioa eta estrategia, zalan-tzan jarriz, haren xedea den zerbitzu publikoaren gauzatzeaz gainera, sozietatearen finantza-biziraupena bera.

Hori horrela, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzea proposatzen dugu, honelaxe:

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, eta haren 192.2.d) artikulua zehazki, zeinak honako idazketa hau izanen baitu aurrerantzean:

“192.2.d) Tokiko merkataritza-sozietatea, kapital soziala titulartasun publikokoa duena, eta nagusiki toki-entitatearena berarena edo haren erakunde publiko batena”.

F saila:
GALDERAK

10-22/POR-00387. Galdera, Altsasuko osasun barrutia eta bertako osasun etxeak behar diren gutxieneko osasun-baliabideekin –hala langileria-koak nola antolaketakoak– modu iraunkorrean hornitze aldera Osasun Departamentuak garatzea aurreikusita dituen jarduketei buruzkoa.*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Altsasuko osasun barrutia eta bertako osasun etxeak behar diren gutxieneko osasun-baliabideekin –hala langileria-koak nola antolaketakoak– modu iraunkorrean hornitze aldera Osasun Departamentuak garatzea aurreikusita dituen jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran (2023ko urtarrilaren 12an, ostegunarekin) ahoz erantzun dakion.

Altsasuko eta bertako osasun barrutiko herrietako jendea duela zenbait urte zailtasunak ari dira

jasaten oinarrizko osasun laguntza jasotzerakoan. Bertako osasun-etxean (Altsasu, Ziordia eta Olazti herriek osatzen duten osasun eskualde oinarrizkoko jendeari arreta ematen diona) duela hiru urtetik arazo larriak pairatzen dira, medikuen plantilla ezagatik. Duela lau edo bost urte plantilla sei edo zazpikoa zen eta pandemia hasi zenetik gorabeherak maiz gertatu dira. Badira egun batzuk mediku bakarra dutenak, beste batzuetan bi eta beste batzuetan lau. Adibidez, egun batean osasun-etxeko atean kartel bat zegoen, pazienteendako honako ohar hau zekarrena: “bi mediku eta pediatra bat baino ez dago barruti osorako”. Egoera hori zenbait egunetan gertatzen da hilero.

Osasuneko kontseilariak, joan den irail aldera, konpromisoa adierazi zuen beste mediku bat gehitzeko, bost izateraino iritsita.

Osasun-etxe horretan bertako arduradun izateko profesional bat falta da, zuzendaritzarik ez baitago.

Zer jarduketa garatuko du Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak langile eta antolaketak aldetik behar diren gutxieneko osasun-baliabideak emateko, modu iraunkorrean, Altsasuko osasun-barrutiari eta bere osasun-etxeei?

Iruñean, 2022ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

10-23/POR-00001. Galdera, 2023rako hazkunde ekonomikoari buruzkoa.*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak 2023rako hazkunde ekonomikoari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer aurreikuspen du Nafarroako Gobernuak 2023rako hazkunde ekonomikoaren gainean?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

10-23/POR-00002. Galdera, Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzuari buruzkoa.*ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariari Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzua, Oinarritzko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzaren mende

dagoena, funtsezko elementua da Oinarritzko Osasun Laguntzaren funtzionamendu, sostengu eta bilakaerarako.

Haren eginkizunen artetik, honako hauek azpimarratuko ditugu: Oinarritzko Osasun Laguntzako taldeak osatzen dituzten langileen etengabeko prestakuntza antolatzea; Oinarritzko Osasun Laguntzaren eta Ospitale Arretaren arteko koordinazioarako talde teknikoetan parte hartzea; zentroi laguntza ematea eta Hobekuntza Plana eta antolaketaarako lehenasunezko beste estrategia batzuk sustatzea; osasun-etxeei laguntza ematea erabakitze-ahalmena eta arretaren kalitatea hobetzeari dagokionez; beharrak finkatzea eta laguntza funtzionala ematea Oinarritzko Osasun Laguntzako historia klinikoari; BAME eta BAEE prestakuntza antolatzea eta gradu-aurreko prestakuntza koordinatzea.

Zerbitzu hau oso dinamikoa izan da berau osatzen duten langileen sarrera-irteerei dagokienez, eta, gaur egun, Covid-19aren eta langileak egonkortzeko prozesuen ostean, egoera zaila datorrela ikusten da.

Horregatik guztiagatik, hauxe galdetzen diogu Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariari:

Nola egituratuta geldituko da Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzua, eta zer berme daude bere eginkizunak betetzen jarraituko duela ziurtatu ahal izateko?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

10-23/POR-00003. Galdera, osasun arloko profesionalen lanbide-karrera hobetzeari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, osasun arloko profesionalen lanbide-karrera hobetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilari Santos Induráin andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Osasunbidearen balio nagusia osasun-langileak dira. Osasun arloko profesionalak hobekuntzak behar dituzte beren lanbide-karreraren aitorpenean.

Zer neurri ezarriko dira Nafarroako Gobernuaren eta Osasun Departamentuaren aldetik osasun arloko profesionalen lanbide-karrera hobetze aldera?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 2an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

10-23/POR-00004. Galdera, COVID-19aren txertaketari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak COVID-19aren txertaketari buruz aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilari Santos Induráin andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Txina, gaur egun, kutsatzeen egoera kritikoa dago, hartuak zituen COVID zero neurri zorrotzak

lasaitu ondoren. Txertaketa izan da eta oraindik ere bada SARS-COV-2az kutsatzearen aurka dugun babesa.

Zer neurri ari da hartzen Osasun Departamentua, batez ere COVID-19aren txertaketari dagokionez, Nafarroan kutsatzeen areagotzea ekidite aldera?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

10-23/POR-00005. Galdera, 2022an osasun-garraiorako enpresa publiko bat sortzeko aurrekontu-konpromisoari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, 2022an osasun-garraiorako enpresa publiko bat sortzeko aurrekontu-konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, onetsi dezan, eta Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan 2023ko urtarrilaren 12an eginen den Osoko Bilkuran:

2022rako aurrekontu-konpromisoei buruzko Erabakian, hirugarren apartatuan, C letrako "Osasuna", "e" atalean, honako hau dago jasota: "Gobernuak konpromisoa hartzen du 2022an osasun-garraiorako enpresa publiko bat sortzeko".

2022ko irailaren 29an egindako kontroleko Osoko Bilkuran, honako hau esan zuen Osasune-

ko kontseilariak, aipatutako aurrekontu-konpromisoaren betetze-mailari buruz gure talde parlamentarioak egindako ahozko galdera bati erantzunez: "Nafarroak osasun-garraiorako enpresa publiko bat izanen du"; eta hau ere gehitu zuen: "konpromisoa da Gobernuaren formulazioa eta babesa izatea urte hau amaitu baino lehen".

Osasun-garraioaren alorrean ordezkariak duten sindikatuek, joan den 2022ko abenduaren 16an, etsipena erakutsi zuten, osasun-garraio premiazkoa eta programatua kudeatuko duen enpresa publiko baten sorreran sortutako atzerapen onartezinagatik, eta adierazi zuten "engainatuak sentitzen direla, foru-gobernuak prozesu horri dagokionez bete gabe utzitako promesengatik", eta adierazi zuten, tamalez, Gobernuko zenbait kideren "hitz onak" egon badira ere, ez direla enpresa hori sortzeko "egin beharreko urratsak egin".

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dut, 2023ko urtarrilaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zergatik ez du bete Gobernuak 2022an osasun-garraiorako enpresa publiko bat sortzeko aurrekontu-konpromisoa, eta, foru-gobernuaren baitan, nork du ez-betetze horren gaineko erantzukizuna?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

10-23/POR-00006. Galdera, Conocimiento y Desarrollo fundazioaren urteko txostenari buruzkoa.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, Conocimiento y Desarrollo fundazioaren urteko txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jau-

nak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Conocimiento y Desarrollo fundazioaren urteko txostena aztertu dugu, eta, horren arabera, Nafarroa lehen postuetan dago errendimendu handieneko adierazleen kopuruari dagokionez; hori horrela, honako hau galdetzen dugu:

Zer balorazio egiten duzu txosten horren emaitzez? Nola jarraituko du lanean zure departamentuak lortutako emaitza onei eusteko?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

10-23/POR-00007. Galdera, Gobernuak toki-entitateekin lankidetzan aritzeari buruzkoa, etxebizitzaren parke publikoa handitze aldera.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuak toki-entitateekin lankidetzan aritzeari buruzkoa, etxebizitzaren parke publikoa handitze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak toki-entitateekin lankidetzan aritzeko bide bat ireki du berriki, udal-lurzorua lagatzeko formula baten bidez, Nasuvin-saren sustapenekin etxebizitzaren parke publikoa areagotzeko zenbait udalerritan. Zehazki, iragarri zuen lurzorua xede horretarako lagatzeko konpromisoa erakutsi duten 14 udalerritan gauzatuko dela ekintza hori.

Zergatik ez da Nafarroako hiriburua sartu sustapen horietan, etxebizitza publikoen eskari handiena bertan kontzentratzen dela kontuan hartuta?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

10-23/POR-00008. Galdera, ekitaldi instituzionalak mezu alderdikoiak zabaltzeko baliatzeari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, ekitaldi instituzionalak mezu alderdikoiak zabaltzeko baliatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du ekitaldi instituzionalak mezu alderdikoiak zabaltzeko baliatzeari buruz?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

10-23/POR-00009. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntza hobetzeko Osasun Departamentuaren negoziazioei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Oinarrizko Osasun Laguntza hobetzeko Osasun Departamentuaren negoziazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan urtarrilaren 12ko Osoko Bilkuran:

2023ko urtarrilaren 3an, asteartearekin, Osasuneko zuzendari nagusi Carlos Artundoren adierazpen batzuk agertu ziren prentsan (Diario de Noticias), zeinetan aitortzen baitzuen Oinarrizko Osasun Laguntza gainditu gabeko erronka zela, eta honako hau iragartzen baitzuen: “datorren asteen, Oinarrizko Osasun Laguntzako Medikuen Foroaren bilkura eginen dugu, eta zenbait erreforma landuko ditugu hor, txikiak baina egoera hobetzen lagunduko dutenak”.

Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzako Medikuen Foroa duela zenbait urte eratu zen Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko eztabaida sustatzeko, eta honako hauek osatzen dute: namFYC-Nafarroako Familiako eta Komunitateko Medikuntzako Sozietatea, SEMG Nafarroa-Mediku Orokorren eta Familia Medikuen Elkartea, SEMERGEN Nafarroa-Oinarrizko Osasun Laguntzako Medikuen Elkartea, ANPE-Nafarroako Pediatría Elkartea, Nafarroako Medikuen Elkargoko Ospitalez Kanpoko Medikuntzako eta Landa Medikuntzako batzordekideak eta Medikuen Sindikatua.

Foro hori osatzen duten talde guztiak medikuntzako profesionalez osatuta daude, eta Oinarrizko Osasun Laguntza, berriz, estamentu profesional desberdinez osatuta dago: Medikuntza, Albaitaritza, Erizaintza, Gizarte Lana, Administrazioa, eta, berriki, Psikologia... Era berean, foroak ez ditu barnean hartzen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ordezkariak duten erakunde sindikal guztiak, Nafarroako Medikuen Sindikatua bakarrik baizik.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

- Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzak duen etorkizuneko erronkaren aurrean, zer negoziazio-asmo ditu Osasun Departamentuak iragarritako erreformak egiteko, eta zergatik uzten ditu kanpoan zerikusia duten gainerako estamentuak eta horien elkarteak eta ordezkari sindikalak?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

10-23/POR-00010. Galdera, Foruzaingoaren Laguntza Brigadak artatzen dituen indarkeria matxistako salaketan ehunekoaren jaitsierari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Foruzaingoaren Laguntza Brigadak artatzen dituen indarkeria matxistako salaketan ehunekoaren jaitsierari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Foruzaingoaren Laguntza Brigadak artatzen dituen indarkeria matxistako salaketan ehunekoaren murrizten ari da nabarmen; zer azalpen ematen dio horri kontseilariak?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

10-23/POR-00011. Galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen artean NBEak erosteko hitzarmenaren arriskuak jakinarazteari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Sodena, CEN eta Albyn Medicalen artean NBEak erosteko hitzarmenaren arriskuak jakinarazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nori eta noiz jakinarazi zenizkion NBEak erosteko Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko akordioaren arriskuak, zure Departamentuak objektibatu zituenak, Kontuen Ganberaren txostenak diotenaren arabera?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-23/POR-00012. Galdera, PSOE eta ERC alderdiek adostu duten eta bidegabeko erabileraren delituagatiko zigorrak murriztea dakarren lege-proposamena onesteko arrazoiei eta horren ondorioei buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, PSOE eta ERC alderdiek adostu duten eta bidegabeko erabileraren delituagatiko zigorrak murriztea dakarren lege-proposamena onesteko arrazoiei eta horren ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi du lehendakariak PSOE eta ERC alderdiek adostu duten eta bidegabeko erabileraren delituagatiko zigorrak murriztea dakarren lege-proposamena onesteko arrazoiei eta horren ondorioei buruz?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

10-23/POR-00013. Galdera, Foruzaingoaren ordezkari sindikalei aurkeztutako jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamenduaren zirriborroak dakarren langile-gastuen igoera finantzatzeari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Foruzaingoaren ordezkari sindikalei aurkeztutako jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamenduaren zirriborroak dakarren langile-gastuen igoera finantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Suárez Benito jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola aurreikusten duzu finantzatzea Foruzaingoaren ordezkari sindikalei aurkeztutako jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamenduaren zirriborroak dakarren langile-gastuen igoera?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

10-23/POR-00014. Galdera, jakiteko zergatik ez zitzaion Fiskaltzari jakinarazi delitu-zantzuak zeudela Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenari zegokionez.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez zitzaion Fiskaltzari jakinarazi delitu-zantzuak zeudela Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenari zegokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez zenion Fiskaltzari jakinarazi delitu-zantzuak zeudela Sodena, CEN eta Albyn Medicalen arteko hitzarmenari zegokionez, Kontu-hartzailetzako zuzendari nagusiak hala adierazi bazizun?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

10-23/POR-00015. Galdera, enpresen gainkostu energetikorako laguntzen eraginkortasunari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako galdera, enpresen gainkostu energetikorako laguntzen eraginkortasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen María Jesús Valdemoros Erro andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu enpresen gainkostu energetikoari laguntzeko Nafarroako Gobernuak eman berri dituen laguntzen eraginkortasunari buruz?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

10-23/POR-00016. Galdera, osasun-garraio premiazkoa eta programatua kudeaketa publikora itzultzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, osasun-garraio premiazkoa eta programatua kudeaketa publikora itzultzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2023ko urtarrilaren 12ko kontrolerako Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

2016an osasun-garraioari buruzko lantaldea osatu zen, sindikatuetakoa, alderdi politikoetako eta Gobernuak ordezkarien parte-hartzearekin, garraio-eredu efizienteena zehazteko xedez. Hala ere, oraindik ez zaio ekin zerbitzu hori eraldatzeari eta lantaldean lortutako ondorioak, gehiengoaren babesa dutenak, aplikatzeari.

Arrazoi desberdinak gorabehera, ez aurreko legegintzaldian ez amaitzearen den legegintzaldi honetan, ez da aurrerapen esanguratsurik izan. Zerbitzu horren kudeaketa sektore publikora itzultzeko zenbait ahalegin izan dira, baina arazoak pilatzen ari dira: ibilgailu narriatuak, bidegabeki aberasten ari diren enpresa pribatuak eta hamarnaka langile egoera prekarioan.

Gobernurako programa-akordioan jasotzen zen osasun-garraio hobeari, eraginkorragoaren eta efizienteagoaren eredu zehazteko kudeaketa publikoa arautzeko konpromisoa. Nafarroako Gobernuak iragarri zuen 2023ko lehen hiruhilekoan gauzatuko zela.

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak ostegunean,

Nafarroako Gobernuak arautuko al du 2023ko lehen hiruhilekoan osasun-garraio premiazkoa eta programatua kudeaketa publikora itzultzea? Hala bada, zeintzuk izanen dira araubide berriaren antolamenduari buruzko oinarritzko alderdiak, giza baliabideei eta baliabide materialei dagokienez?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

10-23/POR-00017. Galdera, etorkizunean tenperaturak igoko direneko aurreikuspenaren aurrean hartuko diren proposamen eta neurriei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, etorkizunean tenperaturak igoko direneko aurreikuspenaren aurrean hartuko diren proposamen eta neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak urtarrilaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2022ko irailaren 8an Osoko Bilkurak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Osasun Departamendua premiatzen zen, azterketa xeheagoa egin zezan 2022ko udan tenperatura altuek sorrarazitako gehiegizko hilkortasunaren inguruan. Hori dela eta:

Heldu den uda aurrekoa baino beroagoa izan daitekeenez, zer urrats egin dira eta noizko espero dira beroak jendearengan dituen ondorioak prebenitu edo arintzeko zeharkako neurriak eta proposamenak?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

10-23/POR-00018. Galdera, jakiteko zer neurri hartuko diren Nafarroan iragarri den berehalako medikuen greba dela-eta.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer neurri hartuko diren Nafarroan iragarri den berehalako medikuen greba dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillen andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak datorren ostegunean, 2023ko urtarrilaren 12an, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko ditu Gobernuak Nafarroan iragarri den medikuen berehalako greba dela-eta?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillen

10-23/POR-00019. Galdera, lehendakari andrearen proposamenei buruzkoa, Foru Komunitateak 2020/2024 bosturtekoan egin beharreko ekarpena eguneratzeko akordioari dagokionez.

UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, lehendakari andrearen proposamenei buruzkoa, Foru Komunitateak 2020/2024 bosturtekoan egin beharreko ekarpena eguneratzeko akordioari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urtarrilaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan abenduaren 2an, Nafarroak eta Estatuak sinatu zuten Foru Komunitateak 2020/2024 bosturtekoan egin beharreko ekarpenaren eguneratzea.

Lehenbiziko doikuntzen ondoren, akordioak ekarri du Nafarroari 137 milioi euro itzultzea.

Akordioa sinatu zenetik hilabete eta hamar egun pasa direnean, lehendakariak ba al du diru zenbateko horretarako proposamenik?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

10-23/POR-00020. Galdera, Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik eratorritako funts ekonomikoekin Ituneko ekarpen berriari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik eratorritako funts ekonomikoekin Ituneko ekarpen berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2023ko urtarrilaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zer balorazio egiten du lehendakariak Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik eratorritako funts ekonomikoekin Ituneko ekarpen berria egiteari buruz?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

